

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abenduaren 29a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Xabier Santxotena •

Burdina landuaz egin duen azken proiektu esperimentalak aurkeztu du Elizondon

Iñaki Urrutia •

«Asteburuetan Baztango Dantzariekin aritzeak giroz aldatzeko balio dit»



Mozorroaren indarra

Iruindarrok ez ditugu inauteriak inork baino lehenago ospatzen. Aitzitik, azkenak gara. Otsailean mozorrotzen ausartu ez, eta urtearen bukaerarako uzten dugu metamorfosia, Urtezahar gauerako. Gau horrek xarma berezia du eta orduan azaleratzen dugu gure baitan ezkutaturik dagoen pertsonaia. Mozorroak urtea hasteko indarra ematen du.

• PATXI UHARTE

Elizondo ●

'Burniari laudorioa'

BURNIARI LAUDORIOA IZENBURUAREKIN hamahiru eskultura aurkeztu dizkigu Santxotena. Erakusketa ibiltaria izan da, eta Nafarroako beste hainbat tokitan egonen da ikusgai, hala nola Barañainen, Tafallan, Zangozan eta Lekunberrin. Hiru ataletan banatu da erakusketa: lehenengoan, lanak forjan egindakoak dira. Espazio soinu-dunak irudikatzen dituzte, eta batez ere hurrei zuzenduta daude. Txalaparta balitz bezala, makilatxoekin eskulturrei soinuak ateratzen ahal dizkiete. Bigarren atalean, ilargi egutegia dago eskulturretan islatuta; burdinazko txapaz ilbetea, ilgora, ilbehera eta ilberria irudikatu ditu Santxotena. Lan hauekin, espazioari kaiolak ezarri nahi izan dizkio, espazio bera mugatuz. Lanik ikusgarriena kuadradilloz eginda dago, kolore gorrikoa da, *Deikunde* izena du eta ikusleari begietatik sartzen zaio. Azkenik, erakusketa osatzeko, *Baserriaren Arkitektura* eta bi *Mozorro* aurkeztu ditu.



Egurraren lan mantso eta astunari alternatiba bat bilatzearen, tarte batzuetan burdina ikertzen hasi zen Santxotena; eta horren emaitza Elizondoko Arizkunenean dago ikusgai egunotan. ● ONDIKOL

Xabier Santxotena proiektu esperimentalak aurkeztu du Arizkunenean

Hamar hilabete eman ditu Xabier Santxotena Tolosarako egurrezko eskultura bat egiten. Tarteka-marteka, egurraren lan mantsoa pixka bat ahazteko, burdinarekin aritu da esperimentatzen.

Olerkiak eskulturen sorburu

Bi hilabete eman ditu Santxotena obra hauek egiten. Egurraren lan mantso eta astunari alternatiba bat bilatzearen, tarte batzuetan burdina ikertzen hasi zen. «Burdinarekin dena egin daiteke; gauza berria eta oso interesgarria izan da, burdina berrogoa da, erraza lantzeko, egurrarekin askoz denbora gehiago eman behar da», dio Santxotena. Eskulturrek idatzizko lanetan izan dute abiapuntua. Olerkiak egiten eta irakurtzen hasten ditu bere lanak. Ondotik, «gauzak dominatzen» saiatzen

da, eta horren guztiaren emaitza eskultura da. «Egurra nahia-godut, gehiago sentitzen dudalako, baina aunitzetan gertatzen da egurrak eskultorea dominatzen duela. Materialen borroka honetan, Oteizak zioen bezala, 'kentzea sortzea da'. Urtarrilaren 21a arte egonen da ikusgai.

Gorriena etxearen zabaltzea

Bestalde, Eguberriek irauten duten bitartean, Arizkongo Bozate auzoan dagoen Gorriena

bere etxean munduko jaiotzen eta Eguberritako postalaren erakusketa egonen da zabalik. Era berean, epe luzera, Xabier Santxotena Artziniegan dituen lanik handienak ekarri nahi ditu Bozatera. Horretarako, «bi urteren buruan, gutxi gorabehera, Gorrienearen bigarren atala egin nahi dugu, aterpe batzuk egingo ditugu, lanik astunenak ekartzeko eta obra gehiena toki berean kokatzeko», azaldu du eskultore arizkundarrak.

Egun, martxoaren 21ean Ba-

rañainen irekiko duen erakusketa bat prestatzen dabil. Espozizio didaktikoa izan da, eta ikastetxeetako hurrek bisita gidatuak egingen dituzte. «Hurrekin lan egitea izugarri gustatzen zait, burutan hainbat gauza harri-garri dituzte, asko ikasten da beraiekin, eta, era berean, museoak eta artea ezagutzen erakusten badiegu, gerora emakume eta gizon askeak izan daitezke, eta ez hutsak».

→ Raket Goñi

Zangoza

'Zangotzarra'-ren laugarrena kalean

Zangozako Enrique de Albret kultura taldeak laugarren urtea egin du aurten eta, ohiturari jarraituz, *Zangotzarra* aldikariaren zenbaki berria karrikatatu dute, 4. alegia.

Zangoza hiriaren inguruko kontuak biltzen dituzten ikerketa edo azterketa lanen lehiaketa antolatzen dute urtero, eta lan horiek dira *Zangotzarren* oinarri. Aldikariaren laugarren zenbaki honek zazpi lan biltzen ditu.

David Marurik Aurelio Erdozain zangozararren inguruko lana osatu du. Erdozain, Enrique de Albret taldeko lehendakaria, duela hilabete guti zendu zen. Bruno Jimenezek Vallejos abizeneko hiru musikariren gainean idatzi du. Carlos Mata Indurainek Raimundo Lumbier karmeldarraren lana aztertu du. Carlos Solak Zangozako eta Nafarroako XVI-XIX. mendeetako legediak erkatu ditu. Enrique Galdeanok Santa Maria la Real elizako atarian diren fidulak (biolin antzeko tresna) ikertu ditu. Alvaro Adotek, Zangozak errege egoitza bezala izan zuen garrantzia. Eta, azkenik, Juan Cruz Labeagak Zangozako herri erlijiotasunaz hitz egin du.

Otsailean ikerketa lanen lehiaketa berrirako deia egingen dute, eta urte bukaeran *Zangotzarren* bosgarren zenbakia aterako dute. Gainera, zenbaki horretan aurtengoan sartu ez dituzten bi lan argitaratuko dituzte. Era berean, kultura taldekoek iragarri dutenez, Zangozako hilarrien eta pieza arkeologikoen erakusketa iraunkorra antolatu nahi dute.

→ Daniel Urrutia

muga enea

MIKEL REPARAZ



Milurtekoa 2002. urteko urtarrilaren lehenbiziko egunean hasiko da. Horixe esan dute marka komertzial handiek behinik behin. Alegia, asteburu honetan ez dela mende aldaketa gertatuko; izan ere, astrologiaren edo astronomiaren auskalo zein printzipioen arabera, Jesukristo sortuz geroztik ez baitira xuxen bi mila eta bat urte pasa. Erdi Aroan nonbait baten batek urteen kontua galdu omen zuen. Eta monje gregoriano baten despisteari esker, egun inork ez daki zein urtetan bizi garen, ez eta mendearen muga iragan ote dugun honezker. Eta indefinizio horretan, marka komertzialek berretsi dute igande gauerdian ospatu ospa dezakegula milurtekoaren adbenimentua, cava eta sagardoaren

Urtero berdin

aparretan. Ordea, benetako ospakizuna heldu den urtean egin beharko dugula, baldin eta mendeari behar bezalako ongietorria eman nahi badiogu. Areago, komeni dela hiru edo lau urtez segidan milurtekoaren muga ospatzea, horrela huts egiteko aukera urriagoak izan ditzagun. Bidai agentziek, xanpain saltzaileek eta bestelako marka komertzialek bihotz-bihotzez kontsumitzaile agurgarrioi egin gomendioa.

Badira zenbait urte honen antzeko artikulua profetikoak irakurtzen eta idazten ditudala urte berriaren bezperetan. Eta, aitortzen dut, asper-asper eginda naukate mende berriaren gaineko iruzkinok. Pazkotan iritzi artikulua alternatiboaz erditzeko aitzakiarik emankorrena horixe izan baita azken aldian: urte be-

riaz txiste txar pare bat bota eta egunotako kontsumismo bortitza praktikatzear gain, zorrotz kritikatu. Pazkoetako tradizioek badituzte-eta milaka aurpegi. Eta denok gara, hola edo hala, tradizioen zale. Goizeko ohatzearen berotasunetik iratzargailuaren orratzei buelta pare bat ematea, esaterako, halabeharreakoa den moduan, ezinezkoa da urtearen mugara hurbildu eta deus gertatuko ez balitz bezala beste edozertaz zutabe bat eskribitzea. Denok garelako, hola edo hala, ohituren morroi. Baina hutsegiteak onartzea ei da lehenbiziko pausoa, eta agian heldu den urteko pazkoetarako gai izan den euroaz edo eta aingeruen sexuaz hitz pare bat egiteko; norbaitek mendea amaitze dagoela oitarazten ez badit bederen.

Bera •

Bortziritakoen

ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu



argazkiak

Argazkilari amateurren lehenbiziko
erakusketa irekia dago Kultur
Etxean, urtarrilaren 5a bitarte

**Berako Kultur Batzordeak antolatua,
Bortziritako argazkilari afizionatuen
lehenbiziko erakusketa ikusgai dago egunotan
Berako Kultur Etxean. Zazpi argazkilariren 51
lan zintzilikatu dituzte, hiru gai nagusitan
banatuak: erretratuak, paisaia eta kultura.**

bier Oronoz, Asier Gogortza, Rosa Mari Errandonea, Jon Abril, Mikel Telletxea, Begoña Lizardi eta Jasone Telletxearen lanetan argazki aski desberdinak ikusi ahal izanen ditu bertaraten denak: ikazkinak, paisaiak, animaliak, loreak... Bada argazki bat teknika estenoipeko egindakoa. Teknika hori argazkigintzaren funtsa da, eta ka-

xa ilun batean egindako zulo tiki baten bidez ateratakoa da argazkia. Kamera ere ikus daiteke erakusketan, teknika horren berri zuzenean jaso ahal izateko. Erakusketa urtarrilaren 5a arte dago irekia, asteartetik larunbatera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Sarrera doan da.

→ Jon Abril



Asier Gogortzaren Ura argazkia, teknika estenoipekoarekin egina. Eta Javier Oronozek Iruñeko txupinazoan egin irudia.

BORTZIRIETAKO ARTISTENTZAT topagunea izatea nahi dute Berako Kultur Etxea, eta áhalegin horretan, eskualdeko argazkilariekin erakusketa antolatzea otu zitzaion Berako Kultur Batzordeari. Argazkigintza afiziotzat dutenentzat deialdia ireki, eta hainbat gonbidapen egin zituzten, batik bat argazkilaritza ikasten ari den jendearekin. Lehenbiziko aldi honetan zazpi argazkilariren 51 lan bildu dituzte, Bera, Lesaka eta Arantzakoak guztiak. Igantzi eta Etxalarko inor ez da animatu erakusketan

parte hartzera. Antolatzaileak, hala ere, gustura dira. «Lanen kalitatea ona da, erakusketa polita gelditu da, eta nahiz eta antzez ere jende gehiago dagoen argazkiak ateratzen dituenen, azken emaitzarekin konforme gara», azaldu dute antolatzaileek.

Teknika, kolore eta gai desberdinak

Deialdian bildu bezala, edozein teknikarekin ateratako argazkiak izan zitezkeen, zuri-beltzean zein koloreetan, eta proposatutako hiru gaiei lotutakoak. Ja-

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Lekuona taberna, Sakanako kultur gunea

Sakanako Bierrik Elkartek zabaldu berri duen Lekuona tabernaren inguruan egin du erreportaia **Guaixe**-ko kazetari Olatz Irizarrek, aldizkari azken zenbakian: «Maiatzaren erdialdean Etxarri-Aranazko plazan dagoen Lekuona taberna berriro zabaldu zen. Oraingoan tabernaren kudeatzailea Bierrik elkartea da eta horrek zentzu berezi bat ematen dio tabernari. Izan ere, dagoeneko **Guaixe**-ren irakurle guztiok jakingo duzuen bezala, Bierrik elkartea euskara, kultura eta euskal komunikabideak bultzatzeko elkartea da».

«Taberna jartzeak helburu bikoitza du Bierrik elkartearendako: batetik, dirua lortzea, hau da, elkartearen autofinantziazioaren bidean urratsak egitea; eta, bestetik, bertan kultur gunea euskaldun bat egitea, euskararen normalizazioaren bidean eta kulturaren sustapenaren bidean urratsak egitea».

«Ostiralero kultur ekitaldiren bat antolatzen bada ere, arrakasta handien izan dutenak kontzertuak izan dira. Liburu eta disko aurkezpenak ere egin izan dira bertan. Kultur programazioa egiteko Bie-

rrik elkartearen barruan Taberna Batzordea sortu da, eta bertako partaideek lantzen dute hilabete bakoitzeko programazioa».

«Abenduaren bukaeratik aurrera Lekuona tabernan pizzak egiten hasi dira, bertan jateko eta etxera eraman ahal izateko. Taberna esan bezala kultur gunea da, ez da pizzeria bilakatuko, baina momentu honetan Sakanan ez dago horrelako zerbitzurik ematen duen tabernarik eta aukera horretaz baliatzea erabaki du Bierrik elkartek».

Biluzik dago

Bexikulasek beste bi ron beltz eskatu eta bat-batean gogora etorri izan balitzaio bezala «egon!, ikusi hau!» esan dit, eta tabernan dauden egunkarien artean begiratu ondoren EUSKALDUNON EGUNKARIA zahar bat atera eta Mattinen marraskia erakutsi dit. Marraskian «Juan Karlos I.aren mezu» tituluaren azpian erregea bera agertzen da, koroa buruan, paperak eskuetan, aurrera makurturik eta kristoren puzkerra botatzen. «Jesus—esan diot Bexikulasi—, espero dezagun marraskilariak problemarik ez izatea!». «Ona, e?, ona!»—erantzun dit berak—. «Hau poza hartu nuena!, horixe baietz! Bazen garaia! Oihuka dezagun behingoz: Erregea biluzik dago! Erregea aire hutsez puztuta dago! Errege honen mezuaren sakonera puzkerrak sortzen duen zaratan geratzen da! Dezibelio txiki batzuk! Ez dago besterik!».

Eta EGUNKARIA itxi eta gainontzeko egunkarien aldera bota du. «Begira—segitu du— hogeita bost urte eman ditugu erregearen jantziari buruz adjektibo eta handipenezko koipekariak entzuten: Versace baten trazak dituela, ereduzko trantsizio dotorez apaindua, parlamentarismo ezin demokratikoagoaz edertua, funtsezko papera bete izan duela eguraldi ona edo txarra izanda... eta abar eta abar. Tontolapikoek jantzia «jatorra» dela esatearekin aski dute, baina hortik gora kristoren leian dabilta! Katedratiko alzheimer-tuek bere «lan ezinbesteko eta beharrezkoaz» ari dira, kazetari lotsagabe morroizaleek trajearen adjektibo guztiak kolektionatzen dituzte, orgasmoraino. Gortetik, beraz lausenguzalerik, behar ez duen trajea dela esaten dute, eta niri behintzat Gorte fisiko ezean dena bihurtu dutela Gorte, lausengu eta menpekotasun iruditzen zait!»

Ahotsa horrenbeste ez altxatzeko erregua egin diot Bexikulasi, bezero guztiak jada gure izkinara jiratuak daudenean, eta berak, «Zaude lasai! Etxean gaude! Johan, atera beste bi!... Zera... zertan ari nintzen? A bai! Kontua da izugarri poztu nintzela. Herritarren eskubideak horrenbeste aldarrikatzen diren mundu honetan, eta denak menpeko zirela sinetsita nengoenean, hara, herritar bat agertu da! Herritar bat «Erregea biluzik dago!» esatera ausartu da! Bejondeiola! Zorionak marraskilariari, eta zorionak EGUNKARIARI!» ●

Mozorro berri on

Ohi denez, iruindarrak mozorroturik aterako dira kalera igande gauean Urte Berriari agur egiteko

Hogeita bost bat urte izanen du Iruñean Urtezahar gauean mozorrotzeko ohiturak, Nafarroako hiriburuan ez baita inauteririk ospatzen. Aurten ere milaka iruindarrek ohitura hori berrituko dute. Azken aste honetan mozorroak prestatzen ibili dira asko. Baina gauza jakina da gehienek azken hiru egunetan lortuko dituztela euren mozorroak.

AZKEN ASTEA DA OKERRENA, ETA AZKEN eguna, eromena. Jende asko mozorro dendetara joaten da azken uanean erabaki duen trajea erostera. Anitz zer nahi duten jakin gabe sartzen dira dendetan. Azken uneko jendetza hori murrizteko, zenbait dendak promozio bereziak egiten dituzte. Donibane auzoko Bayon dendak, adibidez, %10eko deskontuarekin saltzen dizkie mozorroak azken astea baino lehen erosten dituzten bezeroei. Gainera, modu horretan dendakoek ikusten dute nondik jotzen duen jendeak, eta zerbait falta bada, gehiago eskatzeko aukera dute.

Bayon dendako arduradun Jose Maria Basartek dioenez, «badago 200 bat laguneko bezero talde bat dendatik lehenago pasatzen dena». Baina, halarik ere, jende mordo ariko da 31n mozorro bila. Alde Zaharreko La Golosina denda harategietako sistema erabiltzen dute bezeroek txanda errespeta dezaten: txartela hartu eta itxaron.

Igandea laneguna da

Aurten, zoritxarrez, abenduaren 31 igandea da, eta mozorro dendetakoek lan egin beharko dute. «Azken egunean irekiko dugu, eta badakit izugarria izanen dela», erran du Basartek. «Baina guk lasaitasun osoz hartuko dugu. Ez dut inorekin haserretu nahi. Inor arratsaldeko zortzietan ero moduan sartzen bada, doala beste nonbaitera. Azaroaren 15etik izan dugu arropa hemen. Hortaz, denbora izan dute. Azken egunean ahalegin tiki bat eginen dugu, baina pasatu gabe».

Iturruma auzoko Ezma dendakoek ere igandean irekiko dute. Marcillakoak dira, eta dagoeneko hamar urte daramatzate mozorroen negozioan. Iruñeko denda duela bi urte zabaldu zuten. «Marcillan inauterietan mozorrotzen gara», esplikatu du dendako arduradun Belen Ezkerrok. «Hemengoa izugarria da. Han denbora dezente daramagu, jendeak ezagutzen gaitu eta oso goiz etortzen zaizkigu bezeroak, baina Iruñean beti berandu. Itogarria da, ezin baitituzu bezeroak ongi artatu. Eta jende asko sartzen denean, kontu handiz ibili behar duzu osagarri tikiak eraman ez ditzaten. Hori da niretako okerreña». Ezkerrok espero du igandean arratsaldeko seietan Marcillarako bidea hartzea.

Saltzeko eta alokatzeko mozorroak

Ezma denda mozorroak saldu eta alokatzeko dituzte. Eta saltzen dituzten artean badituzte multinazionalak mozorroak, batetik, eta eurek enkarguz egiten dituztenak, bestetik. «Guk oihal hobea erabiltzen dugu, eta mozorro bera neurri bat baino gehiagotan egiten dugu», dio Ezkerrok. Prezioak oihal motaren eta mozketaren arabera dira. Alokairua 2.500 eta 4.500 pezeta artekoa da. Enkarguz egiten dituzten mozorroen artean, 5.000 pezeta hasi eta bezeroak gastatu nahi duen arte.

Iratxe kontsumitzaileen elkarteak gomendatu du, mozorroa alokatzekotan, dendakoarekin ongi zehaztea kalteak izan

Mozorrotzeko nora jo

Dena ehun pezeta (eta gehiagotan) saltzen duten dendetan mozorrotzeko osagarri bixienak aurki daitezke, (eta merkeenak) eta horietako denda askok mozorroak egiteko oihalak ere saltzen dituzte. Dena dela, mozorroa egina erosteko aukera ere badago. Aukera hori nahi duenak ondoko dendetara jo dezake Iruñean.

- BAYON** (Baiona etorbidea, 42 TLF: 948-252840)
- EZMA** (Iturruma, 5 TLF: 948-176358)
- EL CAMERINO** (Kale Nagusia, 64 TLF: 948-226470)
- LA MASCARA** (Abejeras, 6 TLF: 948-250004)
- LA GOLOSINA** (San Anton, 42 TLF: 948-223468 www.lagolosina.com)



Iruindar gehienek azken momentua arte itxaroten dute Urtezahar gaueko mozorroak erosten dituzten mozorro dende gainezka egiten dute. ● MIKEL SAIZ

nez gero zeintzuk ordaindu behar diren eta zeintzuk ez. Ezkerroren hitzetan, alokatutako trajeak bueltan jasotzeko orduan normalean ez dago arazo handirik. «Erredura tikiak, urraturen bat, osagarriren bat falta...», dio. «Mozorro baten ale asko eraman badituzte, gauzak tikiak galduta ere ez diegu kobratzen. Baina mozorro bakarra eraman eta botak galduta baldin badituzte, kobratzen dizkiogu. Eta, beste aldetik, beti gertatzen zaigu zenbaitzuen atzetik ibili beharra trajea itzul dezaten».

Bayon denda 3.125 eta 3.875 pezeta bitarteko mozorroak saltzen dituzte. Garestiagoak ere badituzte, baina prezio tarte

horretako 30 bat mozorro eredu dituzte. «Horregatik ez ditugu mozorroak alokatzeko», esan du Basartek. «Uste baitugu prezio horiek edonork ordain ditzakeela». Bayonen aurten gehien saltzen ari den mozorroa behiarena da, behi eroarena. Baita *Scream*-eko hiltzailearena ere, *Scary Movie* pelikula dela eta. «Jendea, batez ere, mozorrotzen da telebistan eta zineman ikusten duenaren arabera», dio Basartek. «Baina, tira, denetarik saltzen da; jendeak mota askotako mozorroak eskatzen ditu», lehena. Eta bere atzetik, bertze guziak.

→ Asier Azpilikueta


Mozorrotzeko proposamenak

NOBEDADEAK

- **Behi eroak.** Orban beltzeko larruzko mozorro zuria, adarrak eta inbutua buruan, behi eroarena egiteko.
- **Tamara eta konpainia.** Tamara Barakaldokoa, Paco Porras barazki-igarlea, Leonardo Dantesen ileordea, Toni Genil... eta bere atzetik doazen alkatofadun kazetariak.
- **Anaia Handia.** Maria Jose («Eutsi Jorge, eutsi!»), Jorge bosniarra, Koldo («Horrela ez, mutiko»), Mabel etxeoandrea...
- **Pokemon.** Badira 150 aukeran. Horrelako lagunarte handirik ez da Iruñean. Beraz, aukeratu *Pichu* izeneko, ezagunena baita.
- **South Park.** Cartman potoloa, Kyle, behin eta berriz hiltzen den Kenny gizajoa, Stand eta Wendy maitatiak, Chef sukaldari zikina, Terrance eta Phillip kanadarrak...
- **Sorgin Laratzako tropela.** Klaudio Landa txutxumtxularia, Xabier Euzkitze hieratikoa, Itziar Alduntzin modazalea, Anjel Alkain

hooligan edo sarjentu txuskeroa, Super Agirre, Juan Kruz Lakasta eta Martxelo Sotes kilikiak...

- **Giropa.** Nahikoa da astebe ematea izugarriko otorduak egiten eta hortzak garbitzeko uzten. Erratza hartu eta itxaron autoa pasatu arte: Giropa!
- **BETIKOAK**
- **Munstroak.** Dracula, Frankenstein, momia, zombia, Chuky panpina diabolikoa...
- **Hippy.** Askok nahikoa izanen dute armairutik arropa hartzearekin.
- **Star Wars.** Dart Vader gaiztoa, Luc Skywalker eta Han Solo heroiak, Leia printzesa belarri-kaskoduna, C3PO urre koloreko robota...
- **Barbaroak.** Conan, vikingoak, Braveheartekoak.
- **Kantariak.** Elvis Presley, Bruce The Boss, Michael Jackson...
- **Neska poxpolinak.** Freixenet burbuilak, animatzaileak, erizainak, Martini neska... Mutilek oso gustuko dituzte mota honetako mozorroak.



Aurten hain modan jarri diren Pokemonak ikustea hagitz erraza izango da Iruñeko kaleetan. ● PATXI UHARTE



Mozorro batzuk urtetik urtera errepikatzen dira, klasikoak dira alegia. Futbol amerikarreko animatzaileak klasikoak dira Iruñean. ● JOXE LACALLE

Mozorrotzeko bost aholku

- **Mozorro beroa.** Urtezahar gauean sanferminetako giro ona izaten da Iruñean, baina uztailako berorik ez du egiten. Beraz, kontuan izan tabernetan izugarriko beroa egiten duela, baina kalean hotzak gogor jotzen duela.
- **Kentzeko modukoa.** Gogoan izan gau luzea izanen dela eta sartzen den likido guziak inoiz atera beharko duela. Hortaz, erraz ken daitekeen mozorroa eraman, ahalik eta gerriko eta soka gutienekoa.
- **Ez dadila zabalegia izan.** Telefono mugikorrez, elurretako panpinaz edota mahai futboleko jokalariz mozorrotzea polita izan daiteke, baina ez dira hagitz mozorro eroak jendetzaren artean ibiltzeko.
- **Osagarri guti.** Ez osagarri asko eraman. Denak galduko dituzu. Zenbat eta gutiago eraman, orduan eta gutiago galduko dituzu.
- **Makillajea.** Aurpegia edo gorputzaren atalen bat margotuz gero, lehenagotik krema hidratatzailea eman. Eta ohatzean sartu aitzin, ez ahantzi aurpegia ongi garbitzea.

Jules Moulier Oxobi, alegigile eta olerkari apartaz

Moulier, euskal letretan Oxobi izenez ezagunagoa dena, mende honetan euskaraz eginiko literaturak izan duen poetarik hoberenatarikoa dugu; hizkuntz formak arras kezkatuak, euskara ederki maneiatzen zekien idazle honek lau liburu eman zuen argitara bizi zeno.



Jules Moulier Bidarrain sortu zen 1888ko apirilaren 7an. Aita mugazaina izaki, haurtzaroan herriz herri ibiltzea egokitu zitzaion, orduko urterik gehien Baigorriko Oxobian eman zuela. Beste hamaika euskal idazleren kasuan bezala, Moulieri ere bizi-etxeak eman zion literatur izena, *Oxobi* alegia. Larresoroko apaizgaitegi txikian sartuz, eliz ikasketak Maulen eta Biarno aldeko Nai hirian egin zituen, eta 1912an apaiztu zen. Apaiz berriak Hiriburun izan zuen lehenbiziko helmuga erretorearen laguntzaile gisa. Hiriburun 1928ra arte izan zen, eta orduan, erretore gisa horrezkero, Donostirira igorri zuten, kasualki ere Hiriburura iritsi zen erretore berria Donostiritik beretik heldu zelarik. Toki trukaketa egin zuten bi apaizek, gainera, euskal olerkariak ziren, gure Oxobi alde batetik, eta Garaziko Saldunbide apaiza bestetik, *Euskal Erria* aldizkarian mende hasieran olerkiren bat edo beste argitaratu zuena hain zuzen ere. Donostirín 1941 era arte izan zen Oxobi, Arrangoitzeko erretore izendatu zuten arte hots. 1955ean, eta osasun arazoak zituela-eta erretiroa hartu zuen; 1958ko otsailean Arrangoitzen bertan zendu zen.

Esan bezala, Oxobiren aita mugazaina zen, eta, hortaz, ez da harritzekoa Moulier txikia euskara zela bide jarrera hagitz txepela eraman izana. Apaizgaitegian, ordea, euskaraz gozatzeko eta lortzeko lagundu zuten, euskal letretan

rako egile berria irabaziz. Oxobi idazlea Nain zegoela hasi zen euskaraz izkiriatzeko, olerkiak, *Eskualduna* aldizkarian argitara ematen zituenak. Hiriburun zegoela, aldiz, Hiriart-Urrutiren izkiri-laguna izan zen, aldizkariaren zuzentze lanetan laguntzaile hauta ere bai. Gerra Handiaren osteko 1921ean *Gure Herriaren* egitasmoan sartu zen. Hartan, Oxobik ez zuen idatzi bakarrik egin, aldizkariaren ataratzeko eskatzen zuen lana zein argitaratzeko jasotzen ziren kolaborazio lanak zuzendu ere be-rauk egiten zituen.

Bizi zeno Oxobik lau liburu eman zituen argitara, laurak Baionan. Lehenbiziko liburua *Boz-oihu! Deidat! Nigar!* izenburupean agertu zen 1913an, eta gazte zenean eginiko olerki sorta dugu. Bigarren liburua, ausaz ezagunena dena, *Alegiak* izan zen, 1926an agerturik. Hirugarrena *Heiatik zerura* olerki erlijiosoen bilduma dugu,



1935ekoa. Argitara eman zuen laugarren eta azken liburua 1944an agerturiko *Haur elhe haurrentzat* izan zen. Honakoa haurrentzako diren 18 poemak osatzen dute, gehienak alegiak direnak. Oxobiren olerki hauek edukiz haurrentzat baziren ere ez zen berdin gertatzen forma aldetik, eta horixe da Oxobiri lepora zekiokkeen akats nabarmena; halaz guztiz, haur literaturaren ikerlaria den Xabier Etxanizek Oxobik idatzirikoa lanen kalitate altua nabarmendu digu, didaktismoaren eta estetika arteko borrokan kokatzen duena, eta, tamalez, jarraitzailek ez zuten. Agian horregatik, Mendigurenek eta Izagirrek apailatu *Euskal Literaturaren Antologian* «gizartea aldatuz joan arren XIX. mendeko gai eta idazkerarekin segitzea» egotzi diote.

Esan lau liburuez aparte, hil osteko 1966an *Oxobiren lan orhoitgarri zombait* izenburuko liburua agertu zuen Haritzelharrek. Bestalde, hiru izan ziren argitara gabe utzi zituen lanak, *Nola gauden eskualdun* pastoral, *Gure mendiak* olerkiak, eta *Urrikalmenduzko parabolak*. Di-tuela zortzi bat urtetik hona, zorionez, Ainhoa Beolak prestatu- riko Oxobiren lanen edizioa badugu, Euskal Editoreen Elkarteak sustatzen duen Klasikoak sailaren barruan. Bertan Oxobik atera zituen lau liburuak jasotzen dira, Haritzelharrek eginiko edizioaren hainbat bertso, baita argitara gabe geraturiko beste zenbait, tartean aipatu pastoral eta guzti. Beraz, eta agortu bitartean, Oxobiren lanen bilduma paregabea badugu esku- ragai, egun hauetarako opari ederra, geure literaturako harri- bitxia.



Berrogei jaiotza inguru ipintzen dituzte Iruñean jaiotzazaleek. • MIKEL

Oi Betlehem!

Gabonetan pinua edo izeia jartzeko ohitura herrialde eskandinaviarretatik jaso dugu. Gure artean, ordea, jaiotzak dira nagusi. Santa Prizilako katakunbetan aurkitu zituzten Kristoren jaiotza erakusten duten antzinako grabatuak. Halere, Europako tradizioan, Asisko San Frantziskok sortu zuen jaiotzaren irudia. Italian zehar zabaldu zen hasieran, eta bertatik Napolen eta Espainiako errege Karlos III.ak ekarri zuen ohitura Iberiar penintsulara. Gara hartan jaiotzak gordean eta komentuetan soilik paratzen baziren ere, laster hedatu ziren kaleetara eta etxeetara.

Gaur egun, mundu osoan ikusteko aukera dago, batez ere Mediterraneo herrialdeetan. Jaiotzaren oinarriko osagaiak San Jose, Ama Birjina eta Jesus haurra dira, idia eta mandoarekin batera. Hortik aurrera, beste gutzia gehigarria da: paisaiak, izarrak, errege magoak, herritarrak, errekek, mendixkak...

Herrialde bakoitzean bertako irudiak eranstejo joera dago. Iruñean mende hasieratik paratu dira jaiotzak. Lehenengo San Frantziskoko eskoletan atondu zuten berrogeita hamar urte bete dituen Jaiotzazaleen Elkarteak kideek. Gabonetan, Kristo Erregearen parrokian daukaten egoitzan, Erorien monumentuaren atzean, erakusketa antolatzen dute goizez eta arratsaldez. Horretaz gain, elkarte horretako lagunek jaiotzak

paratzen dituzte hiriko beste hainbat bazterretan: udal- txean, katedralean, planetarioan, Antoniutti parkean, Eroskiko hipermerkatuan, Nafarroako Kutxan, Kontuen Ganberan, Mankomunitatean... Orotara, berrogei jaiotza inguru ipintzen dituzte urte oro.

Karriketako jaiotza erraldiak egiteko kortxo zuria eta eskaiola erabiltzen dira batez ere. Etxerako, berriz, hor bar- na aurkitzen dugun edozein paper, oihal edo plastiko balia dezakegu. Betiere, material garrantzitsuena irudimena da. XXI. mendearan ataritan, hasiak dira zaleak teknologia berriak erabiltzen jaiotzak antolatzeko. Batetik, argitapen egokia eta berezia lortzeko aukera ematen du: gaua, eguna, itzalak... Bestetik, jaiotzaren osagaiak mugitzeko ahalmena daukagu ordenagailuaren bitartez.

Jaiotza behar bezala apaintzeko eta prestatzeko, Kale Nagusiko Erla izeneko droge- rriari jo dezakezu. Gainera, lan honetan trebatu nahiz gero, otsailetik aurrera elkarte- an ikastaro bereziak egiten dituzte, urte osokoak. Ikasteko gogo bizia izateaz gain, patri- kan dolar franko badituzu, Betlehemera bertara joan zai- tezke, jaiotzaren museo bisita- tzera. Dena den, kontuz ibili Jerusalem inguruan ez baita giro palestinarren eta juduen artean.

Mende eta urte berri on, irakurle.

Ziria

• Motxorrosolo •

Intrahistoria

Milurtekoaren aski ongi irudikatu du irudiaren nagusitasuna. Konparatzerik ez aurreko urtean izan genuenarekin. Egia, bigarren mailan erdi ezkutaturik. Errealitateak plegu berdina biltzen ditu. Bizkitartean, intrahistoria dugu kontsolamendu bakarra.

Iñaki Urrutia

☉ DANTZARIA

«Baztango Dantzariekin aritzeak giroz aldatzeko balio dit»

Iñaki Urrutia hamasei urterekin Baztango Dantzariak taldean sartu zenean, Mari Kruz Goñik dantza klasikoa ikasten hasteko erran zion. Orduan ez zion inolako garrantzirik eman proposamen honi, bere burua lanbide arrunt batean ikusten baitzuen.

IÑAKI PERTSONA «MUGITUA» da. Solasean etengabe erabiltzen ditu eskuak azalpenak emateko. Iñakirentzat asperetzea geldirik egotea izanen da.

■ Nola sartu zinen dantza klasikoaren munduan?

Ttikitatik erraten digute karreraren bat ikasteko edo lanbide heziketan sartzeko. Nik sukaldaritza hautatu nuen, eta laugarren urtean nengoenean konturatu nintzen hori ez zela nirea, ez zitzaidala gustatzen, eta bi urte lehenago Mari Kruzek egindako proposamena gogotan hartu —dantza klasiko ikasteko esan zidan— eta serioago pentsatzen hasi nintzen aukera hori. Izen batzuk eman zizkidan, eta horien bitartez Almudena Lobonen eskolara iritsi nintzen. Sukaldea utzi eta bihamurtean dantzan hasi nintzen.

■ Zein ideia zeneukan dantza klasikoari buruz?

Ez nekien zer zen, baina halere probatu nahi nuela argi neukan, nik dantzatu nahi nuen. Almudena Lobonen eskolan balio nuela erran zidaten, eta badaramatzat hiru urte bertan. Lehen egun hartan hankak eta gorpuzka ikusi eta memento hartan hasteko erran zidan. Halere, Almudena gauzak argi utzi zizkidan: lan aunitz egin beharko nuela eta oso gogorra izanen zela erran zidan. Honi esker us-tez baino errazagoa egin zait lana. Halere, arras gogorra dela erran behar da.

■ Nola gogoratzen duzu jendaurrean aritu zinen lehenengo aldia?


Zorte handia izan nuen. 1997ko azaroan eskolan sartu eta jadanik hurrengo urteko

urtarrilean emanaldi bat zegoen, eta Almudena erran zidan ordurako prest banengoen aterako nintzela. «Noski aterako naizela!», pentsatu nuen. Urtarrilaren bostean izan zen, Gaiarre antzokian, eta arras gaizki izan zen. Ez nuen mundu hori ezagutzen. Zuzenean zaudenean ezin duzu errepikatu gaizki egin duzuna; gainera, oso urduria naiz, eta gaizki pasatu nuen. Espero dut urteak pasatu ahala ikastea.

■ Nolako da egun bat zuretzat?

Goizeko zortziak eta hogeitan jaiki eta kola kao bat zopekin (gailtekin) hartzen dut. Bederrtzi eta erdietan hasten dugu eskola, baina ordurako berotua dugu gorputza. Barra egiten dugu, eta ondotik ispiluaren aurrean lan egiten dugu. Orain Iruñeko neska batekin, Cristinarekin, *El Quijoter*en pauso bat egiten ari gara. Entseguaren ondotik bazkaltzera goaz. Gero lau eta erdietan berriro entsegu izaten dugu, eta orain eskolak emateko ikasten ari naiz zazpiak arte. Ondotik, zortziak arte, beste eskola bat ematen dut eta, azkenik, ingelesa ikasten dut.

«Almudena Lobonek gauzak argi utzi zizkidan: lan aunitz egin beharko nuela eta oso gogorra izanen zela erran zidan»




● OSKAR MONTERO

■ Bateragarria da astean dantza klasikoan aritzea eta asteburuetan euskal dantzetan aritzea?

Bai, ni naizen bezalako izanik, ongi datorkit asteburuetan Baztango Dantzariekin dantzan aritzea, aste tarteko giroa aldatzeko balio dit, eta euskal dantzak aunitz gustatzen zaizkidanez, ez dut nahi taldea utzi. Gainera, hemengo dantzek ere dirua ematen didate, irakasten aritzen bainaiz.

■ Miarrizteko Baletara joatea ere pentsatu zenuen?

Eskola batzuk hartzera joateko pentsamendua nuen, baina Miarrizteko Baletak maila oso ona duela pentsatuz, nirea



nahikoa ez zela iruditu zitzaidan. Halere, egun batez joan nintzen eskolak ikustera, baita emanaldi bat ere, baina nik bi

soslaia

1980ko ekainaren 14an sortu zen Iñaki Urrutia. Bederrtzi urte izan arte Arraiozen bizi izan zen, eta ondotik Elizondora joan zen. Anaia bikia du. «Mellizoak gara, Xabier bere poltsan zegoen eta ni nirean», azaldu du.

REM ikasten hasi zen, eta bukatu gabe BBB hasi zuen. Ondotik, sukaldaritza ere laugarren mailan utzi zuen. Orain dantza klasikoarekin dabil, eta uste du gustuko duena aurkitu duela. Doneztebeko dantzaleku batean lan egiten du larunbatetan, zerbitzari, goizeko seiak arte.

Dantza klasikoan egiten hasi zenean bere amak gaizki pasatu zuela uste du, dantzaren munduarekin, homosexualitatea, drogak eta beste hainbeste gauza lotzen baitira. Iñakik ez du ia alkoholik edaten, «ez dudalako behar», baina nahikotxo erretzen du, eta oraingo ez du uztea pentsatu.

urtetan ikasitakoarekin ez nengoela prest pentsatu nuen. Gero, hango irakasle batek ere eskolak eman zizkigun Iruñean.

■ Gerora begira non ikusten duzu zeure burua?

Lehenik eta behin erran behar dut Baztan uztea izugarri kostako zaidala. Baina Nafarroan ezinen naiz gelditu, eta Espainian ere ez dut uste aukera handirik izanen dudarik. Parisko Operara joatea gustatuko litzaidake, baina uste dut ez naizela toki jakin batean geldituko. Hilabete bat Ipar Amerikan emanen dut, bestea Italian. Badira toki batetik bestera bizi izaten diren dantzariak. Gustatuko litzaidake honetaz bizi ahal izatea. Erran didate posible dela, baina, noski, lan gogorra izanen da.

→ Rakel Goñi



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Urteak utzi ez duena

Buruko behi-neuronak erotuta ditudanez, jo dezagun topikora. Belaunaldi eta garai bitxi baten seme-alabak gara eta horri esker milurteko berria bitan ospatu duen gizatalde bakarra izango gara. Egia esatera, iazkoa mende berria zen eta aurten, ideia ez errepikatzearen, milurtekoa da estreinatuko duguna. Patrikak bete eta amarruarengatik inork ez du azalpenik emango. Baina tira, xanpain apur batekin topo egingo dugu (edozein herriko jaixetan).

Urtekeri pertsonala osatu orduan hutsune batzuk sumatu ditut nire baitan, haien artean haizeak eraman zituen proiektu eta asmo on gehienak. Hala ere, denbora izan da 2000 honen ostu didan altxorrik preziatuena. Atzera begira, iazko Gabonzaharra bertan ikusten dut eta konturatzeko... igaro da. Abiatuko den berri honi traza bera hartu diot, eta hasia naiz hurrengo urte amaierako artikulua presatzen (NAFARKARIAren arduradunak nahiko balu bederen).

Baina egozentrismoa alde batera utzirik, gorabeheratsuak izan dira oso azken hamabi hilabete hauek. Beste batzuek egin beharko dituzte analisi sakon eta dokumentatuak, baina nire ezjakintasunetik, tertuliano eta enparauek barka dezatela nire atrebentzia, trantsizio aro bat bizi dugula esango nuke. Apenas dakigun nondik gatozen eta nora goazen, baina herri puta hau bidegurutzeko handi batean dago. Urteak, ordea, hainbeste gidariren artean ez digu zamak eramango dituen sherparik utzi.

Eta zurrumbilo honen erdian Nafarroa dago. *Let's talk about this land: the bulls running in Estafeta street, the President was in Argentina singing jotás and enjoying too much.* Saiatu arren, gehiago ikasi beharko dut nafar peto-pettoa izateko, english-español elebidun orekatu jator eta harro bihurtzeko. Momentuz paperik gabeko euskaldun txiroa izaten jarraitzen dut, atzerritartasun legearen menpe bizi dena, Ebro ibaia patera batean zeharkatu zuena. Arlo honetan zentzuzko ezer ez du utzi urteak.

Honela amaitzen da errebaso osatugabe eta subjektibo hau. Azterketa sakonak behar izanez gero, beste zutabe batzuetan izango dira. Honakoa hiru zeroko bat izan da.

gure aukerak

URTEZAHAR GAUA

- ▶ **Barañain:** Lagunak elkartean dantzaldia Akari orkestrarekin, 00:30etik goizaldea arte.
- ▶ **Burlata:** 20:00etan su artifizialak jaurtiko dituzte erripetatik. Gero, 01:00etatik 06:00etara, dantzaldia egonen da Larrain plazan.
- ▶ **Mutiloabeiti:** Dantzaldia egingen dute Rubi Berriak taldearekin kiroldegian, 01:30etik aurrera. Goiztiarrendako txokolatea eta bizkotxoak izanen dira.

JAIALDIAK

- ▶ **Bera:** Biharko Kaxerna Aisialdi Taldeak haurrentzako eguna antolatu du. Goizeko 11:00etatik 13:00etara haurrentzako jokoak eta lantegiak izanen dira Eztegarra pilotalekuan. Ondoren, haurrentzako bazkaria izanen da (lehenagotik eman beharko da izena), eta arratsaldean berriz ere jokoak izanen dira Eztegarra pilotalekuan, 15:30etik 17:00etara. Besta eguna bukatzeko Marsel magoa izanen da kultur etxean, 17:30ean.
- ▶ **Mutiloabeiti:** Haurrentzako moxorro jaialdia egingen dute bihar, 18:00etatik 20:00etara, Osasun Etxeko beheko gelan. Musika, animazioa eta askaria egonen da.
- ▶ **Altsasu:** Astelehenean auzatea egingen dute arratsalde partean Gure Etxean urte berriari ongietorria egiteko. Gaztainak, pikuak eta intxaurrak izanen dira, besteak beste.

MUSIKA

- ▶ **Aitzoain:** Hamlet Madrilgo taldeak gaur eta bihar Artsaia aretoan joko du, 23:00etan.

DANTZARIAK

- ▶ **Iruñea:** Iruñea dantza taldearen eskutik, *Xakatin* musika eta

dantzen ikuskizuna eskainiko dute bihar, Labriten, 20:00etatik aurrera, 2001eko Nafarroa Oinez-en alde.

ANTZERKIA

- ▶ **Atarrabia:** *Ozko magoa* haurrentzako antzezlan eskainiko du asteazkenean TEN Pinpilinpauza taldeak, 17:30ean, Atarrabia pilotalekuan.

ZINEMA

- ▶ **Atarrabia:** Gaur 17:30ean *Pinto* filma euskaraz emango dute, Atarrabia pilotalekuan.

▶ **Burlata:** Gaur *Gezi urdina* filma pantailaratuko dute 18:30ean, musika eskolan.

LEHIAKETAK

- ▶ **Iruñea:** Sex Haizegoak Narrazio Erotiko Laburren VI. Lehiaketa eta Pintura Erotikoen IV. Lehiaketa antolatu ditu. Bi lehiaketarako lanak aurkezteko epea urtarrilaren 31n akutuko da. Lehiaketan inguruan xe-

hetasun gehiago 948-177299 telefonoan edo www.haizegoa.com webgunean.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

- ▶ **Iruñea:** Iruñezar euskaltegian (AEK) zabalik da matrikulazio epea. Urtarrilean hasiko da ikasturte berria. Informazio gehiago 948-210433 telefonoan.

OHARRA: Eguberri bestak direla eta, heldu den ostiralean ez da NAFARKARIArik izanen. Urte berriko lehen NAFARKARIA urtarrilaren 12an plazaratuko dugu. Zorionak eta urte berri on!

• MIKEL SAIZ



Horra, horra, gure Olentzero!

Iritsi zen azkenean Olentzero Azkoien herrira, eta ezin hobeki atera omen zen dena. Aita Noelen zaleen beldur ziren olentzerozaleak, baina momentuan ikusi zuten Azkoien haur guziek maite dituztela bi opari ekarleak, Sabelgorri zein Sabelbeltz. Haurrei bost. Opariak nahi dituzte, eta opari ekarleen magia. Horra, horra, gure Olentzero kantatzen ikasten duten A ereduko haurrei ezin zitzaizkien Olentzerorik gabe utzi. Eta horra hor bi azkoien umeren aurpegia Olentzero euren aitzinetik pasatzen ikusi zutenean. (Tira, egia errateko, argazkilaria begira daude, baina imajina dezagun Olentzero ikusten ari direla). Ezin dotoreago daude Azkoien. Eta heldu den urtean bigarrenez jantziko dute baserriar jantzia. Bejondeiela!